

## 8. PRAKTIKA

Praktikaren izenburua: artikulua bati buruzko gogoeta

Praktika mota: gogoeta-jarduera

Irakurri testu hau: **Torres Santomé, J. (1994). Los contenidos culturales, la diversidad cultural y la función de las instituciones escolares (131-152).** J. Torres Santomé. *Globalización e interculturalidad: el curriculum integrado*. Morata.

Jarraian, erabili azpian dituzun galderak gida gisa, zure gogoeta egiteko:

- Artikuluan agertzen diren hiru ideia aukeratu. Zergatik aukeratu dituzu?
- Zer ideia, errealitate eta esperientziarekin lotu duzu artikuluan esaten dena? Zergatik?
- Lanbideko kide bati gomendatuko zenioke artikulua hau? Zergatik?
- Bakoitzak sartu nahi dituen ekarpenak

## ERANTZUNA

Jarraian ematen den erantzuna orientagarria baino ez da. Ez dago erantzun bakarra

Testua bi ataletan banatzen da:

Lehenengo atalean, testuak azaltzen du gaur egun arte eskolen metodoek izan duten helburu bakarra zein izan den: kontzeptuen metatzea, eskolaratze proposamen gehienek estruktura *fordista* baitute. Hau da, ikasleak euren mahaietan esertzen dira eta beraien aurretik irakasle eta irakasgai ezberdinak igarotzen ikusten dituzte erritmo jakin batean; eta ikasleen nahi bakarra, beraien betebeharrekin ahalik eta azkarren amaitzea da, modu honetan, amaierako kalifikazio edo nota bat jasotzeko sari gisa. Klase horietan ikasitakoak ez du inolako garrantzirik izango, amaierako nota da garrantzitsuena.

Baina zorionez ikasteko modu horrekin amaitu nahi da, eta eskolaren bidez ikasleak gizartean hiritar aktibo eta kritikoa izateko prestatu nahi dira. Horretarako, ikasleek haien erabakiak hartzen ikasi beharko dute, lankideei laguntza eskatzen, eztabaidatzeko eta kritikatzeko gaitasuna izaten, etab. Hau da, eredu kritikoan oinarritutako irakaskuntza bilatzen da.

Tamalez hau lortzea ez da erraza, Torres-ek dioen bezala, irakasle lanetan dabiltzanak beste eredu batzuetatik datozelako. Alegia, lehen hainbat ezagutza transmititzen zizkieten eta horiek ikasi behar izaten zituzten, ez zen beste aukerarik egoten, ez zuten hausnarketarik egiten eta ezta kritikarik ere. Ezagutzak inongo logika eta zentzurik gabe ikasten eta barneratzen zituzten, eta liburuetan zegoena zen aukera posible bakarra eta ondo zegoena.

Testuaren bigarren atalean urteetan zehar hezkuntza sistemak izan duen eta oraindik leku askotan daukan arazo larriari buruz hitz egiten da: kultura gutxituak edota marjinauak isilaraziak izan dira. Izan ere, inongo botere eta indarririk ez duten kultura asko daude gizartean, baina horiek, eskoletan aurrera eramango den kultura aukeratzeko orduan ez dira kontuan izan.

Irakurgaiak 10 kultura gutxitu azaltzen dira:

1) Estatu Espainoleko nazioen kultura.

Frankoren Diktaduraren garaian, nazio espainoletik urruntzen zen guztia isilarazten zuten. Honen adibidea bezala, Euskal Herria, Katalunia edota Galizia ditugu. Beraz, kultura gutxitu horiek isilarazteko obsesio horretan eta nazio espainola indartzeko helburuarekin, testu liburuak manipulatu egiten ziren. Bertan Espainiari bakarrik egiten zitzaion erreferentzia eta helburua nazio gutxiekiko gorrotoa bezalako sentimenduak sortaraztea zen. Gaur egun, oraindik, gorroto sentimendu horiek ez dira guztiz desagertu.

Hortaz, egoera hau kontuan hartuta, curriculum demokratiko batek, aniztasun politikoa, kulturala eta linguistikoa aintzat hartu beharko lituzke, eta ikasle guztiei bere komunitatearen historia eta tradizioa ezagutarazteko aukerak eskaintzea, eta baita, Estatuko gainerako komunitateen historia ezagutzea ere.

2) Haur eta gazte kultura.

**Puntu hau laburbilduz, esan daiteke orain arte "heldu-zentrismoa" oinarri izan dela; izan ere, umeak munduaren errealtatetik baztertuta egon dira urteetan zehar. Umeei ez zaie kontziente egin haien ingurutik urrun edo ez hain urrun zeuden bidegabekeriaz, hala nola, organo trafikorako eta *Escuadrones de la muerte*-ren helburu diren umeak, umeen hilketak, indarkeria eta esplotazioa **jasaten duten umeak ... Kontua da, ezin ditugula begiak itxi eta bidegabekeri** hauek gertatuko ez balira bezala egin; *aldea global*-a definitzen dugun horretan ezinbestekoa da bidegabekeria hauen jakinaren gainean egotea; batez ere, elkartasun nahikoa lortu nahi badugu bidegabekeria hauei aurre egiteko edo konpontzeko. Hortaz, haur eta gazteek kontziente izan behar dute errealtate gogor hauetaz egoerarekin konprometitzeko.**

3) Boterarik ez duten edo gutxituak diren etniak.

Arrazistak ez garela beti esaten den zerbait da, baina ondoren, konturatu gabe ekintza edo pentsamendu arrazistak izaten ditugu. Esaterako, ijitoren bat gure ondotik pasatzen bada poltsari heltzeko joera izaten dugu. Horrelako ekintzak konturatu gabe egiten ditugu, beraz, nahiz eta arrazistak ez garela esan, ondoren errealtatean arrazistak gara. Honen arrazoiak ezberdinak izan daitezke, baina arrazoietako bat etnia horien inguruan kontatzen diren istorioetan aurki dezakegu. Hobeto azaldu ahal izateko, guk gertu dugun adibide batekin azalduko dut, hau da, ijitoen adibidearekin.

Betidanik, ijitoen inguruan istorio negatiboak kontatu izan dizkigute, hau da, ijitoak lapurrak edota gaizkileak direla kontatzen ziguten. Ijitoen inguruan beti **gauza berak entzuten genituenez, guk ijitoak pertsona "txarrak" zirela sinesten** genuen itsu-itsuan, eta geure buruari ez genion planteatzen, agian pertsona onak izan zitezkeenik. Baina askotan guri kontatu izan dizkiguten istorio horiek deformatuak egoten dira eta kultura hegemonikoek dituzten interesen arabera kontatzen zaizkigu, kultura edo etnia gutxituari euren istorioa kontatzeko aukerarik utzi gabe.

Egoera honen aurrean eta testuko pasarte batean irakur daitezkeen bezala, garrantzitsua izango da gutxituak direnen historia eta kulturak curriculumean lekua izatea.

4) Emakumeen mundua.

Emakumeek ere urte luzeetan zehar zapalkuntza egoerak bizi izan dituzte. Ideologia dominatzaile baten bidez, hainbat ideia ezarri daitezke gizarte batean

eta ideia horiek alda ezinak bezala ulertzen dira, naturalak bezala alegia. Emakumeen kasuan, hori gertatu izan da urte luzez, izan ere, emakumea gizonaren menpe dagoen subjektu bezala ulertu izan da. Gainera, orain arte ia eskubiderik ez zuten, esaterako, ez zuten aukerarik hezkuntza erakundeetara sartzeko; gaur egun, aldiz, edozein ikasgeletan nesken eta mutilen kopurua antzekoa izan ohi da.

Gaur egungo gazteek, ordea, ez dute emakumeek bizi izandako historiaren berri. Beraz, garrantzitsua izango da historia horren nondik norakoak azaltzea ikasleei. Azken finean, historian zehar burutu diren akatsak aztertzea eta ulertzea da garrantzitsuena, berriz ere akats berdinetan ez erortzeko.

#### 5) Lesbiana eta homosexual sexualitateak.

Sexualitatea ez da dimentsio biologikoaren kontua, beste dimentsio batzuk eta garrantzitsuagoak baditu. Honekin batera esan behar da, homosexual eta lesbiana kultura ez dela gai individual bat, baizik eta soziala; giza erlazioekin zerikusia du, baita egitura sozial eta lanarekin ere. Horregatik, oso garrantzitsua da pertsona homosexual eta lesbianak daudela onartzea umeez hauekin elkar bizi behar baldin badira arraroak edo baztertuak sentitu ez daitezela.

Beraz, ezinbestekoa da hezkuntza munduan kontu hauei buruz hausnartzea edozein ikasleek bere sexualitatea aukeratzen duenean, errudun edo baztertuta ez sentitzeko eta libreki eta inongo zapalkuntzarik gabe egin dezan.

#### 6) Langile klasea eta pertsona pobreen mundua.

Eskolan bi errealitate hauei buruz gutxitan hitz egiten zen. Orain dela urte batzuk hona, krisiarekin batera eta herritarren eta langileen eskubideen urraketekin batera errealitate honi buruz gehiago hitz egiten hasi da; izan ere, ikasle askoren familiak egoera hori pairatzen hasi direlako, langabezian baitaude, eta komunikabideetan gaiak zabalkuntza gehiago jaso duelako. Hala ere, arazoari garrantzia kentzeko ofizialki ematen diren zenbakiak ez datoz bat errealitatearekin.

#### 7) Landa eta itsasoko mundua.

Oraindik pentsaezina da Espainiako Estatuan nukleo hauei buruz baliabide **didaktikoetan ematen zaien "errealitatea"**. Izan ere, **testuliburuetan oraindik** aurkitu daitezke inguru hauen dimentsio idiliko eta mitikoak. Adibidez, basoen itxura honako hau da: kutsatu gabeak, non animalia eta gizakiek elkarrekin bizi diren, bizitza lasaia, zaratarik gabe, orokorrean arazorik gabe. Horrek errealitatean ekartzen dituzten arazoak ez ezagutzea eta horiei buruz ez hausnartzea eragiten du. Gauza bera gertatzen da itsasoko nukleoan bizi diren pertsonekin.

Horregatik, curriculumean espazio gehiago eman beharko litzaieke horrelako errealitateei eta errealitatea den bezala azaltzea, ez moldatzea, ez ezkutatzea. Benetan gertatzen dena ezagutu eta kontziente izan gaitezten.

8) Elbarritasun psikiko eta fisikoak dituzten pertsonak; 9) Hirugarren adineko pertsonak, eta 10) Hirugarren munduko ahotsak.

Gauza berdina gertatzen da azkenengo hiru alderdi hauekin. Liburuetan oraindik zaila da elkartasun batekin dagoen pertsona baten adibidea, argazkia, kasua, arazoa aurkitzea; gure eguneroko bizitzan egongo edo existituko ez balira. Baita gauza bera adineko pertsonekin ere gertatzen da, hauen zereginak, eguneroko bizitzaren berri ez zaio ematen; eta zer esanik ez hirugarren munduan bizi diren milioika pertsonei buruz.

Horrek (gai horren inguruan duten ezjakintasun hori) ikasleek *arraroak* hitzarekin erlazionatu dezakete, eta askok erlazionatzen dute. Izan ere, haien eskola errealitatean integratuta ikusten ez dituztelako, eta gakoa hor dago: ezjakintasun eta errealitate horien ezkutaketa horretan bazterketa, beldurra, ezjakitea... ematen da.

Beraz, horrek arazo larria dakartzanez eta konpondu daitekeen zerbait denez, poliki-poliki konpontzen ari dela pentsatzen dut, instituzioek eta adituek gehiago egin beharko lukete eta daukan garrantzia eman beharko liokete.

Eskoletan ezinbestekoak dira hainbat programa ezartzea, adibidez, immigrazioa, genero indarkeria, arrazakeria lantzeko... Benetan errealitatea ezagutzeko balio dutelako, baina programa hauek lantzea ez da nahikoa. Izan ere, askotan programa horiek egun batez arrazismoaren inguruan hitz egiten dutelako. Eta hori ez da nahikoa. Horrelako gaiak, eskolan egunero landu beharko lirarteke adibideen bidez edo esperientzian oinarritutako kontakizunen bidez, egunero izan beharko lukete lekua eta ez egun konkretu batean soilik. Izan ere, egun konkretu batean bakarrik izaten badute lekua, gai horiek arrotzak egiten dira eta arrarotzat hartzen dira.

Beraz, errespetuan eta demokrazian oinarritutako curriculum bat izan nahi badugu, beharrezkoa izango da horrelako gaiak urte guztian zehar lantzea, egun guztietan, irakasgai guztietan eta errekurtsio didaktiko guztietan. Kontuan hartuta gaur egungo eskoletan ikasleak jatorri ezberdinekoak direla eta eskolan bertan ikasleak hezteko eta aberasteko baliabide ezin hobea eta aproposa dugula gai hauek lantzeko.

Azkenik, testu hau oso interesgarria irudi zait eskolak duen arazo eta errealitate bat azaltzen duelako. Egia da, ez garela jabetzen eskolan *sartzen* dizkiguten ideiaz. Baina honelako testu bat irakurtzerakoan, hortaz konturatzen gara.